

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y
EMPLEOCULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO
AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN
LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak 59 milioi jarriko ditu ezintasuna duten pertsonen arreta ematen dieten lau zentro kudeatzeko datozen lau urteotan

Las Hayas (Sarriguren), Valle del Roncal (Iruñea), La Atalaya (Tutera) eta Oncinada (Lizarra) zentroak dira, 341 pertsonarentzako lekuarekin

Miércoles, 29 de agosto de 2012

Nafarroako Gobernuak ezintasuna duten pertsonen arreta ematen dieten lau zentro kudeatzeko kontratuen lizitazioa baimendu du gaurko bilkuran: 'Las Hayas' Sarriguren-en (Eguesko ibarrean), 'Valle de Roncal' Iruñean, 'Oncinada' Lizarran eta 'La Atalaya' Tutera.

Hiru kontratuak ('Las Hayas' eta 'Valle de Pamplona' elkarrekin lizitatuko dira) 2013ko urtarrilaren 1ean hasiko dira, urtebeteko indarraldia izango du, eta gehienez ere lau urtez luza daiteke. Foru Komunitateko Administrazioak aldi horretan 58,5 milioi euro inguru jartzea aurreikusten da (BEZ kanpo), 15,22 milioi euro 2013ko ekitaldian (BEZ barne).

Tuterako 'La Atalaya' zentroan adimen-urritasun handia eta sakona duten pertsonen arreta espezializatua emateko zentroa kudeatzeko kontratuak 11,4 milioi euroko balioa duela kalkulatu da (BEZ kanpo); 'Las Hayas' Sarriguren-en (Eguesko ibarrean) eta Iruñeko 'Valle de Roncal'-eko zentroetan adimen-urritasuna duten pertsonen arreta integralerako kontratua 33,9 milioi eurokoa da; eta Lizarrako 'Oncinada' zentroan ezintasuna duten pertsonen arreta ematen zaien arreta integrala, eguneko arreta-errejimenean eta bizileku-arretako errejimenean, 13,2 milioi eurokoa.

Aipatu beharra dago, zentro horietan ezintasuna duten 341 pertsonari arreta ematen zaiela, guztira: 66 'La Atalaya'-n; 114 'Valle de Roncal'-en; 96 'Las Hayas'-en eta 66 'Oncinada'-n.